# Uruguaira joandako euskaldunen kultur adierazpenak ikertzeko beka eman du Eresbilek

**Uruguaien egondako orkestra zuzendari, koru, organo jole, txistulari, danbor jole eta akordeoi jole euskaldunen bizitza aztertuko dute Juan Zelaia Letamendia musika-bekaren azken irabazleek.**

GARA | **DONOSTIA**

Juan Zelaia Letamendia Musika Bekaren hirugarren edizioak badu dagoeneko proiektu irabazlea. Eresbilek antolatu eta Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioak babesten duen deialdiak 9.000 euroko dirulaguntza emango die Eneko Sanz Goikoetxea eta Alberto Irigoyen Artetxeri Uruguain historian egondako euskaldunek izan zituzten kultura eta musika adierazpenak iker ditzaten.

Aurreikusitako azterketa aurrera eramateko dokumentazio lan sakona egin beharko dute saridunek. Hala, artxibo eta liburutegi publiko zein pribatuetara zuzenduko dute beren jarduera.

Halaber, musikarien ondorengoek izan ditzaketen materialak jaso nahi dituzte, Alzola, Larrinbe, Olaverri, Mujica eta Iguainen kasuak erreferentzia hartuta. Dokumentazio bilketaren ondoren, berriz, eskuizkribu, partitura eta grabazioen digitalizazioa egitea izango da proiektuaren alderdi garrantzitsuenetakoa.

**Euskal etxeetara**

Gainera, Uruguain dauden euskal etxeetan gorderik dagoen material grafikoa erabiliko dute, bertan egin ziren ekitaldiak dagokien testuinguruan kokatzeko; Horrenbestez, aurkitzen dituzten argazki, egitarau eta jaiei buruz egindako kronikak bildu-ko dituzte. Era berean, euskal etxeek plazaratzen zituzten barne buletinak ikertuko dituzte Uruguaiko euskaldunek abesten eta dantzatzen zituzten piezak ezagutzeko.

Lehen eskuko informazioa eman diezaieketen pertsonak (musikariak, koruetako kideak) elkarrizketatu, eta digitalki gordeko dituzte beren berbak. Era berean, orduan inprimatu zituzten gonbidapen, egitarau eta kantutegiak digitalizatuko dituzte ikertzaileek.

XIX. mendeko hirugarren hamarkadatik aurrera, euskaldun asko abiatu ziren Uruguaira. "Caja Vasco Navarra de Reempatrio" izeneko elkartea 1883. urtean sortu zuten Euskal Herri osotik aberria utzi eta Ozeanoaz bestalde joan ziren etorkinak.

Aipagarria da, Grandmontagnek idatzitako "Los Inmigrantes Prosperos" liburuan, Amerikako euskarari buruz hitz egiten duela. «Euskara hau, bertan bizi diren euskaldunen euskalkien nahasketaren ondorioz sortu da», nabarmendu dute ikertzaileek. «Luciano Bonaparte hizkuntzalariari, euskalki hau iritsi zitzaionean harritua gelditu zen, eta hizkera hau Buenos Airesko euskalkitzat kalifikatu zuen», gogoratu dute.

DIRULAGUNTZA

**Eneko Sanz Goikoetxea eta Alberto Irigoyenek 9.000 euroko dirulaguntza jasoko dute Uruguaiko euskaldunek utzitako arrastoa jarraitzeko.**

MODU DIGITALEAN

**Liburutegietan, elkarrizketa bidez eta euskal etxeetan aurkitutako informazioa digitalki gordeko dute ikertzaileek.**

FESTIVAL

## Asier Polo y Marta Zabaleta, figuras del programa BBK de Músicas Actuales

El XXVII Festival BBK de Músicas Actuales, que se desarrollará desde hoy y hasta el 21 de noviembre en el Museo Guggenheim, contempla ocho conciertos y 48 obras clásicas de autores como Maurice Ravel o Gustav Mahler. Asier Polo y Marta Zabaleta serán protagonistas del último de los recitales y del decimoquinto disco de la colección discográfica BBK. Los conciertos tendrán lugar a partir de las 19:30 y pretenden, según la organización, continuar ofreciendo novedades y mantener al mismo tiempo su vertiente «histórica, artística y popular». Se trata de un festival «muy abierto y amplio», que no es para profesionales y en el que está incluido «todo lo que se entiende por la música del siglo XX y XXI».

CITA INTERNACIONAL

## Arranca en Gasteiz una nueva edición del Festival Carmelo Bernaola

La cuarta edición del Festival Internacional de Música Carmelo Bernaola arrancó ayer con la actuación del trío rumano PromoZICA. El día 8 de noviembre actuará Axyz Ensemble (Holanda); el 15 de noviembre, Ensemble Espacio Sinkro (Euskal Herria); el jueves 22 de noviembre, Meta4 Quartet (Finlandia); y el jueves 29 de noviembre, Ensemble 2d'Lyres (Estado francés). Los conciertos tendrán lugar a las 20:15 en el Aula Magna del Conservatorio de Música Jesús Guridi.

MÚSICA CORAL

## Iruñea recibe hoy a las voces del Moscow Music Pedagogical College

The Rose Ensemble (EEUU) abrió ayer el XIII Ciclo Coral Internacional que se desarrolla en el Civivox de Mendillorri esta semana. La segunda actuación, la de hoy, tendrá como protagonista al Coro del Colegio de Pedagogía Musical de Moscú (Moscow Music Pedagogical College) que llega desde Rusia integrado por 40 menores, 38 niñas y 2 niños, para actuar en la ciudad bajo la dirección de Tatiana Leonova.

PUBLICACIÓN

## La Cátedra Jorge Oteiza edita el libro «La creación musical en el siglo XXI»

La Cátedra Jorge Oteiza de la Universidad Pública navarra ha publicado el libro "La creación musical en el siglo XXI", que constituye el octavo volumen de la colección "Cuadernos de la Cátedra Jorge Oteiza". El libro recopila las lecciones impartidas por el compositor Tomás Marco en un curso organizado por la Cátedra en setiembre de 2006 dentro del programa "Arte y cultura en las sociedades del siglo XXI".



**OTROS ESPACIOS PARA EL TEATRO Y LA DANZA.** La iniciativa Itineris Apur BAD recorrió ayer el Casco Viejo bilbaino demostrando que cualquier lugar ofrece un espacio idóneo para el teatro o la danza. Los artistas actuaron en cinco puntos, entre ellos una casa particular de la calle Ronda y la estación de Euskotren. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

